

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMAINA

Gerra ondorena

20 zbk.

2006ko irailaren 3a



Andazarrateko erietxea. Bertara eramaten zituzten tuberkulosiaz kutsatutako gaixo asko.

GERRA ONDORENA

36ko Gerraren amaierak zein ondorio ekarri zuen galdetuta ekin diogu hogeigarren eta azken bilerrari. Erantzuna laburra, azkarra eta esanguratsua izan da hizlarien ahotik, “boniatoak eta horrelakoak!”. Zalantzarik gabe, miseria izan zen nagusi gerra amaitu eta lehen urte luzeetan. Gosea etxe gehienetan, gaixota-

sunak gertu-gertuan. Ezagutu gabe, garai hura zer izan zen azaltzea benetan zaila dela aipatu dute solaskideek. Hala ere, gogotik egin dute ahalegina eta gain-gainetik bada ere, egoeraren irudi orokor bat ematea lortu dugulakoan gaude. Gerra ondorengo egoeraren berri azaltzen hasi aurretik, ordea, Gernikako bonbardaketari egin nahi diogu aipamena.

GERNIKAKO BONBARDAKETA

36ko Gerra hasi eta bederatzir hilabetera, 1937ko apirilaren 26an, Francoren aliatu alemaniarren aire-armadak Gernika bonbardatu zuen. Azoka eguna zen Gernikan eta bertan bildutako herritarrei eraso zien. Herria txiki-txiki eginda utzi zuten eta bonbardaketaren ondoren, Mola jeneralak Gernika hartu zuen. Francok beti ukatu egin zuen bonbardaketarekin zerikusirik izan zuenik, baina gaur egun, guztiz frogatuta dago aire-armada alemaniarrek Francoren baimena eta laguntza izan zuela. Gernikakoa, populazio zibila jomuga hartuta, helburu militarrik gabe, mundu mailan egin zen lehen bonbardaketa izan zen. Andoainen jaio eta Villabonan bizi den David Barandiaranek gertutik gertura bizitu zuen han gertatu zena, “Gerratik ihesi Oriora joan ginen lehenengo. Aitak zortzi egunetan bukatuko zela esaten zuen baina,

ez zen hala gertatu. Beraz, Oriotik Mundakara egin genuen ihes. Zortzi edo bederatzir urte izango nituen nik. Mundakan txoriekin afizio handia zuen lagun bat egin nuen. Niri ere asko gustatzen zitzaizkidan eta birigarro kabi bila joan ginen 1937ko apirilaren 26 hartan. Gernika aldeko mendietara abiatu ginen eta han genbiltzala, abioiak sentitu genituen. *Pum* eta *pum* hotsak entzun zitezkeen nonahi. Gure abioiak ez zirela eta Gernika bonbardatzen ari zirela konturatu ginen. Zulo batean gordeta egon ginen tarte luzean. Etxera itzuli ginenean, amak *ez al dakizu zer gertatu den?*, esaten zidan builaka. Nik baietz, zulo batean ezkatututa egon ginela. Hurrengo egunean Mundakako elizako plazan gudariekin bazkaldu nuela gogoratzen dut. Andoaindar bat baino gehiago zebilen han, tartean gure anaia. Menuaz ere ondo gogoratzen naiz: *Anchoas a la papilló*”.



Gernikako bonbardaketan bizia galdu zuten euskaldunen omenez Picassok marraztutako lan ezaguna.

BARREA ETA NEGARRA

36ko Gerrak hiru urte luze iraun zuen, 1939 urtean amaitu zen hainbeste errugabek ordaindu zuen ankerkeria. Hizlariak ondo gogoan dute garai hura, “kanpai piloa jo zuten. Poz ikusgarria heldu zen. Guk radioa bagenuen eta berri guz-

tiak adi-adi entzuten genituen. Ikusgarritzko poza, bai. *Gure mutilak etxera etorriko dira eta bakean biziko gara* pentsatzen genuen”, abiatu da Encarna. “Poz handia bai, baina denetik izan zen; gerran mutil asko hil zen eta hil zirenen

etxeetan pena nagusitu baitzen”, jarraitu du Maria Luisak. Barrea eta negarra eskutik lotuta, beraz. Aurrerantzean lasaia-go oheratuko ziren baina, barru asko eta asko geratu zen zulatuta. Min isila gailendu zen etxe asko eta askotan.

GOSETE IKARAGARRIA

Gerrak berarekin ekarri zuen ondorio larrietako bat gosetea izan zen. “Bost urtez luzatu zen gosea. *Cincuenta* inguruan ha-

si ziren kontuak pixka bat aldatzen, jarkiak ugaritzen...”, azaldu du Joxek. “Ni *cincuenta* ezkondu nintzen eta oraindik

nahikoa komeri bazela gogoratzen naiz”, gehitu du Maria Luisak.

“Gerrak iraun zuen urteetan ez zen

dendarik itxi, baina apal asko zegoen hutsik. Generoa falta zen". Baserri gehienetan oinarrizko lehengaia artoa zen; hura jatea, ordea, ez zen batere erraza. "Baserri eta etxe gehienetan artoa bazen, baina ez zeneukan ehotzera nora eramanik. Prezintatu egin baitzizutzen harrapatzen zituzten erroak".

Baserrietan babarruna jaten zuten ia egunero, kale-etxeetan ahal zutena. "Jendearen kategoriaren arabera, hiru ogi mota izaten ziren; *primera, segunda* eta *tercera*. Onena *primerako* hori izaten zen, ogi koxkor txiki bat. Baina garai hartan ez genuen ogi koxkorrik ere". Ahal zen bezala moldatzen ziren, "askotan mendiz ekartzen zuten ogi-irina eta etxean egiten genuen ogia". Ogia jan nahi zuenak, etxean egin beste erremediorik ez zuen izaten. "Su baxuan egiten genuen".

Beti ere, gosea handiagoa zen kale-etxeetan baserrietan baino, "patata zela



Joxe Ugartemendia

"Bost urtez luzatu zen gosea. Cincuenta inguruan hasi ziren kontuak pixka bat aldatzen, jakiak ugaritzen..."

edo babarruna zela, baserrietan errazagoa zen jakiren bat izatea". Hala ere, egoera ez zen batere erraza. "Baserrian arrautzak baziren, bai. Baina saldu egiten genituen beste zerbaiten truke. Orain nork eskaintzen dio ume bati arrautza bat baino gutxiago? Gu sei anai-arreba ginen eta tortilla patata egiten zenean, patatari bi arrautza nahasten zitzaizkion", azaldu du Maritxuk. "Olioarekin beharrea, bilgorrarekin edo seboarekin egiten genuen sukaldean. Seboa zartaginaren atzealdean jarri eta hura urtzen zenean gehitzen genuen jakia". Oilandarik ez zuenak, nekez ikusiko zuen arrautzarik, "kalean arrautzarik ez genuenok, *tortilla vegetal* jaten genuen. Esnari hautsa nahastu eta patatari gehituz, tortilla antzeko zerbait egiten genuen". Hautsekin egindako tortilla hura ez zitzaien askorik gustatzen, baina gosearen aurrean edozer jaten zen. "Abioia erori eta giza-haragia jan zuten ba haiek?", galdetu du Joxek, "igual-iguala. Harrapatutakoa jaten genuen guk ere".

Kale-etxeetan ez zen egunerorako babarrunik izaten, "boniatoa edo babata jaten genuen asko. Ez zitzaigun batere gustatzen baina, ez zegoen beste ezer handirik. Nazka handia ematen zigun guri. Orain ba al dakizue Argiñanok boniatoak prestatzen dituela?". Ez dakizuenontzat,

patata antzeko tuberkulua da babata. "Erreta jaten genuen. Zapore gozoa zuen". Noski, gutizirako tarterik batere ez: "Kaferik ez zen. Garagarrekin edo gari txigortuarekin egiten genuen kafearen ordezko zerbait".

Taloea eta esnea edo *morokilla* ere oinarrizko jakiak ez ezik, oso estimatuak ziren. "Taloea bezala, *morokilla* ere arto-irinarekin egiten zen eta baldin bazen, aforia izaten zen hura. Gure etxean behintzat, arrautza frijitua norberaren urtebetetzean bakarrik jaten zen", aipatu du Maria Luisak. Baserrian bizi zirenek ez hainbeste baina, hizlariak gogoan dute gosea pasa izana. "Gaur bezalako tripa-handirik ez zen ikusten orduan. Ez zegoen *rejimenik* egin beharrik!".

Artoarekin eginda, beste opil moduko bat ere jaten zuten, "arto-irinarekin masa egin eta taloak baino xerra potoloagoak ere egiten ziren. Artoa deitzen zitzaion. Aza hostoan bildu eta sutan egiten ziren", gogoratu dute hizlariak.



Boniatoa eta taloea sabela betetzeko jakirik zabalduenak.

ARRAIN SALTZAILEAK GERRA ETA GERO

Hizlariak gogoan dute arrain saltzaileak nola ibiltzen ziren Amasan eta Villabonan karroa edo barreñoia hartuta. "Amasara igotzen zen azken arrain-saltzailea Pakita Ustarrotz izango zen. Baserriz baserri ibiltzen zen. Igandez ere igual joaten zen". Villabonako banatzaileen artean berri, Mendia, Karmen *pesCADORA* eta Rosario Garaia aipatu dituzte. Gerra eta gero, tarteka-tarteka erosten zuten arraina, "erosten zenean, txitxarroa edo berdela erosten zen gehienetan. Angula ere gaur

baino askoz ere merkeago ezagutu genuen. Hala ere, gerra ondorenean ez genuen angularik jaten. Nik angula probatu nuenerako izango nituen hemezortzi bat urte", gogoratu du Maritxuk. "Bakailaoa eta sardina zaharren bat erosiko zen noiz edo noiz baina, esnea, olio, azukrea..., denetik behar zen eta ez zen dirurik ezertarako. Erosketak egin eta zorra apuntatuta uzten zen askotan. Hurrengotan ordaintzekotan beti", gaineratu du Maria Luisak.



Irudiko arrain-saltzaileen pare ibiltzen ziren Amasan eta Villabonan.

BARATZETAKO FRUITUAK VILLABONAKO ALHONDIGARA

Amasa nahiz Villabonako baserriarrek Villabonako udaletxe azpiko Alhondigara ekarri behar izaten zituzten baratzetik jasotako fruituak, "patata, artoa nahiz babarruna ekarri behar izaten genuen herri-

tarren artean banatzeko". Garai hartan hain urriak eta preziatuak ziren jakiak nahi eta nahi ez eraman behar izaten zituzten udaletxe azpiko arkupeetara. "Patatak edo dena delakoa udaletxe azpira

entregatzeko epe bat jartzen zuten. Baserriarrok, eskatzen ziguten egunerako eraman behar izaten genuen zakua beteta. Baina haiek banatu ez eta barazkiak alfer-alferrik usteldu egiten ziren. Ez barruko-

entzat eta ez kanpokoentzat! Ez zuten bati-
tere antolakuntzarik. Horrez gain, epera-
ko entregatzen ez bagenuen edo genero
txarra eramaten bagenuen, isuna ematen
ziguten”.

Baserrian edo etxean animaliak zituzte-
nak diskrezio osoz ibiltzen ziren badaez-
pada ere, “baserrian txerria hil behar ba-
zen, borrarekin buruan jo eta fuera. Gai-
nerakoan izugarritzko marruak ateratzen
zituen eta norbait horretaz jabetuz gero,
haragia banatu egin behar izaten zen”.
Pepitak, “txerria urtean behin besterik ez
zen hiltzen”, gaineratu du. “Haragia gazi-
tu eta zeziña egiten genuen ahal zenean.
Modu horretan, nahikoa ondo mantene-
n zen”.



**Pepita
Lasa**

*“Baserritarrok, eskatzen ziguten
egunerako eraman behar izaten
genuen zakua beteta. Baina
haiiek banatu ez eta barazkiak
alfer-alferrik usteldu egiten
ziren”*

Orduan ere, familia batetik bestera al-
de handia zegoen, sosek agintzen baitzu-
ten zer ahoratu. “Sacem lantegiko Telle-
ria nagusiaren etxean zerbitzari aritu nin-

tzenean, denetik jaten zen han: Ez zego-
en olio faltarik, ez haragi edo arrain falta-
rik ere. Gerra ondorenean, Villabonan
hobekien jaten zen etxea zela esaten zen.
Alde ederra zegoen gure etxetik hara! 12
kilo hartu nituen hilabeteen”, azaldu du
Maria Luisak. Gosea nahikoa ez zela,
burla egiten zutela ere aipatu du Joxek,
“negu bizian, emakumeak saltoka ikus zi-
tezkean kalean goizeko hiruretan edo
lauetan. Harategi kanpoan ilaran jartzen
ziren seboa eskuratzeko. Hotzari aurre
egiteko aritzen ziren saltoka”. Preziatua
zen orduan bilgorra edo seboa, “oliorik
ezean, seboa bero-bero egin eta han friji-
tzen genituen patatak edo genuena”. Xa-
boia egiteko ere erabiltzen zuten.

AUXILIO SOCIAL-A BATZOKIAN

“Gurasoentzat penarik handiena umea
gosituta negarrez ikustea zen. Jateko zer-
bait eman nahi, baina eduki e...”. Villabo-



**Pako
Etxenike**

*“Salvadoratik ikatza eramaten
genuen bizkarrean hartuta.
Bokadillo bat baino gehiago jan
nuen joan-etorri haien trukean”*

nan, behartsuei edo gose handia pasatzen
ari ziren herritarrei laguntzeko bazen *Au-
xilio Social-a*. “Lehen Batzokia eta orain
Behar-Zana elkarte dagoen horretan *Au-
xilio Social-a* zabaldu zuten. Zer gertatzen
zen? Adiskidetasunak zirela tarteko, bat-
zuei jaten ematen zietela eta beste bat-
zuei ez”. Haurrak ez ezik, hainbat heldu
ere biltzen zen bertan. “Salvadoratik ika-
tza eramaten genuen bizkarrean hartuta.
Bokadillo bat baino gehiago jan nuen jo-
an-etorri haien trukean”. Janariaz gain,
arropak ere banatzen zituzten tarteka.
“Bolada batean arropatxoak biltzen ibili

ginen behar handiagoa zutenen artean
banatzeko. *Auxilio Social*-era eramaten
genituen”, gogoratu du Encarnak.
Janaria lortzeko edozer gauza egiteko
prest ote zeuden herritarrek? “Gosea oso
zabalduta egon arren, ez zegoen gaur
egun bezalako lapurretarik. Gehienez ere,
fruta garaian sagarren batzuk hartzen zi-
ren zuhaitzetatik. Artoa edo babarrunen
batzuk baratzetatik”, aipatu du Encar-
nak. Maritxuk egia edo gezurra ote den
ez dakiela baina, “nik entzun nuen erein-
dako patata lurretik atera egin zutela bere
horretan jateko”, esan du.

ERRAZIONAMENDU LIBURUXKA

Familiako kide kopuruaren arabera, erra-
zionamendu liburuxka bat izaten zen
etxe guztietan, “udaletxera iristen ziren li-
buruxkak eta handik dendetara banatzen
ziren. Ni gogoratzen naiz Arregineren es-
nea eramaten genuela eta handik jasotzen
genuela olioa”, aipatu du Maritxuk.

Familia bakoitzari, senide kopuruaren
arabera, erosketarako neurri zehatz bat
egokitzen zitzaion, “laurden bat olio edo
bi litro olio, baina hilabete gutzirako, e?
Azukrea igual..., ezin zen liburuxkan
ageri zen neurria baino gehiago hartu”.
Errazionamenduan hartzen zituzten ja-
kiak ordaindu egiten zituzten, “pagatu
egiten genituen, noski. Dohainik ez ze-
goen ezer”. Banaketa neurria jakina zen,

CENTRAL NACIONAL SINDICALISTA
DE
FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA y de las JONS

C. N. S.
GUIPUZCOA

RACIONAMIENTO ESPECIAL PARA PRODUCTORES DEDICADOS A FAENAS DE GRAN DESGASTE FISICO

Delegación Local de Andoain Núm. 37

Empresa o artesano P. Fabril Subijana

Nombre y apellidos Sebastian Ameta

VALE POR LOS ARTICULOS QUE A CONTINUACION SE EXPRESAN:

Aceite Gramos	Leche Gramos	Patatas Gramos	Jabón Gramos	Café Gramos	Azúcar Gramos	Salas Gramos	Garos Gramos
250	1kg	7kg	2.50		150	500	

Establecimiento suministrador Sda. Andoain

Recibi, L PRODUCTOR, S. Harriet

de Andoain de 1942

EL DELEGADO SINDICAL LOCAL
GUIPUZCOA
ANDOAIN

Gerra osteko errazionamendu liburuxka bat.

“etxean bizi zen senide bakoitzarentzako olio laurden bat izaten zen hilabeterako. Ez zen gauza handirik eta ahal zen bezala moldatzen ginen”. Olioa eta azukrearekin batera, errazionamenduan erosten zuten tabakoa ere.

“Errazionamenduko janari hura kanpotik ekartzen zuten, baina ez dakigu nondik. Baserrietatik jaisten genuena ere bana zitekeen, baina ez, usteltzen uzten zuten”. Jakina da, oraindik ere min egiten die antolaketa kaxkar hura gogoratze-

ak. “Baserri batean lana eginez gero, zure artoa eta zure babarruna ematera behar-tzen zintuzten. Hori gutxi balitz, joan hadi errotara goizeko hiruretan jaikita”, aipatu du Maria Luisak. “Ni 1941 urtean joan nintzen soldaduskara. Aurreneko baimenarekin abenduan etorri nintzen. Hamabost kilo arto bizkarrean hartu eta anaia-ri lagundu nion Asteasuko errotara erreka bazterretik. Artoa utzi, haren ordez irina hartu eta berriz ere buelta”, gogoratu du Joxek. Berehala erantzun du

Maritxuk, “gaitz erdi bueltakoan-ekartzeko irinik baldin bazenuen. Gerra ondorenean, Asteasuko Loidi errota besterik ez zegoen irekita. Esnea Villabonako Krutx letxeroari ekarri, astoan hartu garia edo artoa eta errotara goizean. Ilunabar arte zain egon eta zakuan eramandako 40 kilo gariren trukean igual itzultzen nintzen bi kilo edo bost kilo irinekin etxera. Izugarritzko ilarak egoten ziren; Andoaindik eta txoko guztietatik etortzen zen jendea”.

PLATO ÚNICO, KARIDADEA EGITEKO MODU BAT

Gerora *Plato único* deitutakoa jarri zuten, “konparazio batera, zure bazkariak bi pe-



Karmen eta Encarna.

zeta balio bazuen eta bi plater jaten bazenituen, egun horretan, plater bakarra jan eta bigarren platerak balio zuen dirua, premia zutenei emateko erabiltzen zen. Karidadea zen, limosna bat egitearen parekoa”. Encarna Amasako baserri askotan ibili zen dirua biltzen. “Ni Arriako Karmen Artolarekin hamabostero joaten nintzen baserriz baserri dirua biltzera. Marrubitzatik abiatzen ginen, Otelarre guztia pasa eta Arratzain arte. Arratzain- n dirua kontatzen genuen eta Toribia Barberi ematen genion jasotakoa. Etxe bakoitzeko nagusiaren izenarekin eta eman zuten diru kopuruarekin paperak betetzen genituen. Batek bi erreal eman- go zituen, besteak pezeta edo bi pezeta



Encarna Yarza

“Ni Arriako Karmen Artolarekin hamabostero joaten nintzen baserriz baserri dirua biltzera. Marrubitzatik abiatzen ginen, Otelarre guztia pasa eta Arratzain arte”

eta erdi. Nik egiten nuen eskribienta lana. Oso ondo hartzen gintuzten baserrietan. Kalatrasen sagardoa eskaintzen ziguten, kafesne goxo-goxoa Bordan...”.

TUBERKULOSIA, HERRITAR ASKOREN AZKEN ARNESA

Gosea gerra ondorenak utzi zuen ondorio larria izan bazen, gaixotasunak utzitako arrastoa ere ez zen makala izan. “Bularreko gaixotasuna zabaldu zen nabarmen. Tuberkulosia etorri zen”. Hainbat hizlarik gertutik ezagutu zuen tuberkulosiaren alderdi iluna. “Nik 22 urteko anaia bat galdu nuen”, aipatu du Joxek. “Bai, bai; Rufino izena zuen”, gogoratu dute gainerakoek. “Soldaduskara joan eta tuberkulosiarekin kutsatuta etorri zen. Egun, katarro txiki bat bezala, berehala sendatuko lukete gaixotasuna, baina orduan...”. Tuberkulosiarekin kutsatzen ziren gaixoak Andazarrateko erietxera eramaten zituzten. Amasa, Villabona nahiz inguruko herrietako gaixo asko bildu zen han. “Anaiaren gelan Amezketako mutil gazte bat zegoen. Ku-



Andezarrateko erietxea bota aurretik ateratako irudia.

tsatzeko arriskua egonagatik, bisitan joaten uzten ziguten. Oinez ere behin baino gehiagotan joan ginen, ttipi-ttpa.

Anaiaren azken esaldietako bat gogoan daukat. —*Joxe, hiltzera noa. Etxean hila nahi nuke.* Etxera ekarri eta bi egun pasa

Gerra ondorena

zituen bertan. –*On Epifanio ekarri, eskatu zigun. Apaiza etxera etorri eta bueltan elizara ailegatu aurretik hil zen anaia. Uso bat bezala*”, kontatu du hun- kituta Joxek.

“Soldaduskatik edo gerratik mutil asko itzuli zen gaixotuta eta gaitza oso kutsa- korra zenez, berehala zabaldu zen ingu- ruan. Tartean, emakume asko kutsatu

zen”. Kutsatu ziren guztiak ez zituzten Andazarratera eramán, haietako asko eta asko hil zen etxean. “Andazarraten, ema- kumezkoentzat eta gizonezkoentzat be- reizita zituzten gelak. Ez ziren elkarrekin egokitzen”. Penizilina geroago ailegatu zen, 1945ean.

Tuberkulosia iritsi zen garaian, mediku azterketarik egiteko ohiturarik ba ote ze-

goen herritarren artean? “Ezta gutxiago- rik ere! Ez zegoen gaur bezalako kontro- lik. Bat-batean, gaixotu egin zinela kon- turatzen zinen, eta kito! Eta gero ere, hil- tzeke bezpera arte ez zinen medikutara joaten. Errespetua baino gehiago, beldu- rra baitzitziaion medikuari. Orain lagu- nen pare ikusten ditugu medikuak, baina orduan...”.

JANTZIAK, ZAKUEKIN NAHIZ MANTEKIN

Luxuak alde batera utzi eta jantziak, ahal zen oihal puskekin egiten zituzten. “Kolo- retako hautsekin eskuz tindatutako za- kuekin egiten zituzten batzuek jantziak. Txukun-txukun tindatzen ziren arropak, hautsa uretan egosi eta ura hoztu arte denbora igarotzen utziz. Ez zuten gaur egun eskuz tindatutako arropak bezala kolorerik askatzen”. Lehengai askoz ere



Maritxu Mendizabal

“Ni papertegian erabilitako mantak hartu eta harekin berokia egindakoa naiz”

oinarrizkoagoa izanagatik, txukun eta kontzientziaz egiten zuten lan aurrekoek. “Ni papertegian erabilitako mantak hartu eta harekin berokia egindakoa naiz”, azal- du du Maritxuk. Hotzari aurre egiteko edozein estalki zen ona, noski. “Ez zego- en urtaro bakoitzerako jantzi berririk. Ez hori ez zait gustatzen eta bazterrean utziko dut moduko pentsaerarik ere”.

MAKIEN MUGIMENDUA URRIA INGURUAN

Erresistentziako kideak ziren makiak, errepublikarrak. Gerrilla moduko bat osatzen zuten, “soldadu gaiztoak bezala juzgatzen ziren makiak”, esan du Encar- nak. Joxek aipatu duenez, “Nafarroan ibili ziren hemen baino gehiago. Orain- dik ere, Nafarroa aldean badaude trin- txerak eta garai hartako arrastoak”. Fran- coren errejimenaren aurka egin zuten borroka makiak, “mendiz ibiltzen ziren. Amasamendira ere ailegatu ziren noiz-

bait. Baina herrian ez ziren sumatzen”. Makien artean espainiarrak ziren nagusi, “euskaldunak ere izango ziren tartean baina Espainiatik etorritako mutilak zi- ren gehienak. Guk ez genituen ezagu- tzen. Ez dakigu zein ibiliko zen tartean”. Irun aldean makien mugimendua handia izan zela aipatu dute, “muga inguruan ibili ziren batez ere. Han izan zen mug- imendu nagusia. Armatuta ibiltzen zi- ren”.



Makiak borrokarako prest.

ESTRAPERLOA, MENDIRIK MENDI




Martin Laskurain

“Kontrabandoan ekartzen genuen hainbat elikagai dendara; olio zahagian esaterako. Hori dela eta, denda itxiarazi ziguten hilabete batzuetarako”

Hasieran, elikagaiak garraiatzen ziren bat- tik bat mendian barrena; geroago, jana- riez gain, jantziak ere ibiltzen zituzten hara eta hona. “Andoaingo Trentxikiak makina bat janari ekarri zuen; babarruna, baba txikia...Trenetik jakiak hartu eta batzuk bizikletaz, oinez edo korrika bes- teak, ahal zen bezala egiten zen ihes”. Amasamendin ere izaten zen mugimen- durik, “harrapa ez zituzten, gaez ibiltzen ziren kontrabandistak. Hemendik irin dezente garraiatzen zen Frantzia aldera”.

Askok eta askok oinez egiten zuen bidea, baina ez guztiak, “kotxearen kubiartetan ere gauza asko pasatzen zen mugetan”. Kontrabandoan harrapatuz gero, isunik izaten ote zen? “Aurrena behintzat, gene- roa kentzen zuten. Gero, edozer gauza etor zitekeen. Kartzelara ere eramán zu- ten bat baino gehiago”. Kontrabandoa zela eta, Martinek eta familiak itxi egin behar izan zuten Kooperatiba denda bo- lada baterako. “Kontrabandoan ekartzen genuen hainbat elikagai dendara; olioa

zahagian esaterako. Hori dela eta, denda itxiarazi ziguten hilabete batzuetarako. Mendiluzeren etxe-azpian zabaldu genuen orduan". Estraperloan aritzen zenak ez zuen zailtasunik izaten ekarritakoa saltzeko, "nori emana beti izaten zuen. Kontrabandista askok diru asko egin zuen garai hartan". Maritxuk garraiatzen zen edozer gauza berehalakoan nola kentzen zuten ekarri du gogora, "gogoratzen naiz nola behin oilasko pare bat eramatera Andoainera bidali ninduten neska koxkorretan. Etxetik abiatu eta hor ikusi nituen bi *guardia civil* behetik gora zetozela. Batean eta bestean, asko ibiltzen zi-



Trentxikik Andoain zeharkatzen zuten Iruñetik Donostiara bidean.

ren garai hartan. Jira eta etxera itzuli nintzen, kendu egiten baitzuten harrapatutakoa. Etxe ondoan txerriak edukitzeko

txabola bat genuen eta hantxe utzi nuen saskia. Gora pasa zirenean abiatu nintzen berriro oilaskoak hartuta".

EUSKARAREN GAINBEHERA

Gerra garaian iritsi zen euskaraz hitz egiteko debekua Euskal Herrira. Noski, Amasa eta Villabona ere ez ziren debeku horretatik kanpo geratu. "*Hable en cristiano* araua nagusitu zen izkina guztietan. Ez ziguten euskaraz hitz egiten uzten". Herri txikietan handiagotan baino errazago mantendu zen euskara, baina hala ere, nahikoa lanekin, "elizan, kalean nahiz eskolan...", leku guztietan geneukan debekatuta euskaraz hitz egitea". Hala ere, salbuespenak baziren, "beste herrietan ez bezala, dotrina euskaraz ematen zen Amasan. Villabonan gaztelaniaz".

"Etxe euskaldunetan euskaraz hitz egiten zen, noski", baino debeku hark eragin zuzenak izan zituen hiztun askoren artean. "Guk euskara gurasoengandik ikasi genuen eta haiengandik mantendu



Maria Luisa Zalakain

"Eskolan gaztelaniaz hitz egitera behartu gintuztenez. anai-arreben artean gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartu genuen"

dugu. Eskolan gaztelaniaz hitz egitera behartu gintuztenez, anai-arreben artean gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartu genuen. Orain, ilobekin euskaraz egingo badugu ere, anai-arreba eta seme-alabeekin gaztelaniaz aritzen gara gehienetan",

esan du Maria Luisak. Amasarrek, eskolan gaztelaniaz egitera behartu arren, etxeko denekin euskaraz hitz egiten dutela adierazi dute.

Maria Luisak, hizkuntzak pertsona guxtiesteko ere balio zuela azaldu du, "gure aitak ez zekien erdaraz, baina herriko bandoak gaztelaniaz bota behar izaten zituena. Orain ez zait batere inporta baina orduan, izugarrizko lotsa ematen zigun jendeak barre egiteak. Gaztelaniaz ez zekitenei, *caseros* esaten zieten oso modu txarrean".

Haur jaiio berriei euskarazko izenak jartzeko orduan ere nahikoa arazo izan zen, "askok eta askok geroztik aldatu du izena euskarara. Orduan juzgatuan ez baitzuten haurrari izen euskaldun jaritzen uzten. Zenbat kasu inguruan!".

IDEIAK ISILPEAN

Gerra ondorenean, ez zen alderdi politiko mugimendurik, "ideiak bagenituen barruan baina, ezin genituen adierazi. Akabo! Isilik egotera behartuta geunden". Taldeak bereizi egin ziren eta oro har, ez zegoen bilkura tokirik, "ez zegoen herri mugimendurik eta ez ginen inorekin elkartzen, Luistarrekin edo Mariaren alabeekin ez bazen. Erljioa zen mugitzen gintuena".

Francoren diktadura zorrotza bukatu arte ez zen pisuzko hauteskunderik izan, "Franco hil eta gero egin ziren lehen hauteskundeak. Ordura arte, Villabonako

Udala ere haien esku egon zen".

Aurrez, eskolaz hitz egin genuen zenbakian aipatu genuenez, Gerra ondorenean, Espainiako bandera goratzen zuten kantuak abestera behartuta zeuden gazteak egunero-egunero. Franco herritik pasatzen bazen, hari ongi-etorria egitera joan behar izaten zuten Espainiako bandera eskuan hartuta.

"Gaur ilobei edo seme-alabei kontu haiek kontatzen hasi orduko, *hasi gara betiko kontuekin* esango dute. Probatu gabe, ez dago jakiterik zer izan zen hura. Detaile guztiak emanez, garai hura ahalik

eta ondoen azalduta ere, ez dago jakiterik", esan du Joxek serio eta arrazoia eman diote gainerako hizlariek.

36ko Gerrari buruz luze jardun eta gero, bizia galdu zuten euskaldun haiei aipamena eginez emango diogu bukaera hogeigarren eta bildumako azken zenbakari. "Batarena zein bestearena, bizitza kentzea oso gaizki egina dago. Baina telebistan, alde bateko hilketak aipatzen eta errepikatzen dituzte beti. Nekatuta gaude horrekin. Francok hil zituen euskaldun haiek guztiak ez al dute aipamenik merezi?".

Gerra garaia gogorra izan bazen, ondorena ez zen xamurragoa izan. Ahantzia dirudien garai hartako oroitzapen biziak ekarri dituzte hizlariek.



Joxe Ugartemendia



Pepita Lasa



Pako Etxenike



Encarna Yarza



Maritxu Mendizabal



Martin Laskurain



Maria Luisa Zalakain

...ETA HURRENGOAN ZER:

Itrakurle, bilduma bukaerara iritsi da. Hurrengo hilabetean ez dugu Lumane aldizkaririk izango. Hala ere, Amasa eta Villabonako erretratu zaharrak oinarrian izango dituen liburua kaleratzeko asmoa dugula jakingo duzue dagoeneko. Urte erdi bateko lana izango da eta argazkiak jaso eta jaso ari gara.

Liburuan argitaratuta ikusi nahiko zenukeen argazkirik baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan. Karidade-enea etxean aurkituko gaituzue, Zizurkilgo Bulandegi bidean. Etorri aurretik, dei ezazu mesedez 943 696 450 telefono zenbakira. Beterrikoliburua@topagunea.com helbide elektronikoa ere balia dezakezu.

MILA ESKER

Hogeigarren zenbaki honekin buka da bilduma. Hauxe duzue azkena. Hogeai gai, hogeai aldizkari. Gu gustura geratu gara emaitzarekin, gustura hartzailearen aldetik izan duen harrerarekin. Eta amaitu aurretik, eskerrak emateko ordua iritsi da...

Eskerrak hilabetez hilabete aldizkaria banatzeaz arduratu diren saltegetako kideei: Kixubi, Ogi-goxo, Kale Nagusiko Labezain, Arroako Labezain, Larrea, Kazetaria, Roteta, Mirari eta Zubiondo.

Eskerrak egitasmoa diruz babestu duen Villabonako Udalarai.

Eskerrak argazkiak utzi nahiz azalpenak ematen lagundu diguzuen herritar guztioi.

Eskerrak irakurle bakoitzari.

Eskerrak Lumaneko koadrila osatu duzuen partaide maitagarrioi. Ikusi arte, eutsi umoreari!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza Kultura Saila